



UHARTE ARAKIL ARTZAI EGUNA

☎ 948 46 40 11 ✉ info@artzaieguna.eus

Teléfono: 948 46 40 11

Correo electrónico: info@artzaieguna.eus

Artzai txakurren lehiaketaren oinarriak

Inskripzioa

1. Eskualdeko txapelketak egin ez diren eskualdeetako txakurren kasuan, inskripzioa Aralar Mendi elkartean egingen da, txapelketa egin baino 8 egun lehenago gutxienez.
2. Txapelketa honetan Euskal herriko bertako arraza eta historikoki gure landa eremuetan lan egin duten arrazako txakurrek parte hartu dezakete.
3. Txakurraren jabeak —hark eman beharko dizkio aginduak txakurrari— Nafarroako Foru Komunitatean bizi beharko du ezinbestean, eta bere lan eremua ere bertan egon beharko du.

Lehiaketa

1. Probak bi ariketa izanen ditu, eta bakoitzak 7 minutu iraunen du.
2. Lehen ariketa txakur guztiek egingo dute; bigarreanean, berriz, lehen ariketan sailkatutako lehendabiziko 3 o 4 txakurrek parte hartuko dute. Amaierako sailkapena bi ariketetan lortutako puntuazioak batuz lortuko da.
3. Berdinketa kasuetan baino ez da kontuan hartuko proba egiteko erabilitako denbora.

Sariak

Txapeldunak eta txapeldunordeak Nafarroa ordezkaturako dute Euskal Herriko Txapelketan eta txapeldunak, Oñatiko Nazioarteko Txapelketan.

a) Sailkapenaren arabera sariak

1. Trofeoa, txapela eta 250 €
2. Trofeoa eta 175 €
3. Trofeoa eta 150 €
4. 125 €
5. 100 €
6. 50 €

b) Ondoen jantzitako artzainarendako saria

1. Trofeoa

c) Arraza bikaineneko txakurrarendako saria

1. Trofeoa

Era berean, artzain bakoitzari 50 €-ko dieta ordainduko zaio.



Aralar Mendi Elkartea

Donibane Enparantza, 3. 31840 Uharte Arakil | 948 46 40 11 |

aralarmendielkartea@gmail.com